

**Eskatzea libre,
ematea
ere bai**



Arg.: M. Albisu



Andra Mari, K/ 37. ORDIZIA
Tel-Faxa: 88.12.81

Baga-Biga *Kulturgaiak*
Musika Aldizkariak Bideoak Fanzineak **Liburuak**
Komikiak **Paper-gaiak** *Maketak*
Gai-alternatiboak **Kamixetak** *Txanotak etab..*



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**


Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



MUJIK



BEASAIN ☎ 88 74 00



on do eta

**ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.**

Nagusia, z/g. Tfnoa.: 883102. Faxes: 88 0872 ITSASONDO

Argitarapen honen edizioa laguntzaz:

En la edición de esta publicación colabora:



*fundazioa
fundación*

UKIPEN LENTEAK

HILEKO
ALDAKETA
12 LENTE

14.000 pta.



LENTILAK

18.000 pta.

HAUTARIKO EDOZEIN
EROSTEAGATIK
MOTXILA
ZORAGARRI HAU OPARI

APROBETXA ZAITEZ



12.000 pta.
8.900

Uztetgabeko opariak

PVP: 13.900
9.500

Aukera
ezin hobea

11.875 pta.
8.790

11.000 pta.
8.500

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR



**%15eko
D.T.O.A.**
EGUZKIKO
BETAURREKOTAN

**GELDITU ERREGE
BAT BEZALA. EGUZKIA
OPARITU.**

GIORGIO ARMANI

Prada

byblos

bolle

CARRERA

EASSUN

look

INDO

Christian Dior

Prada

paco rabonne

STING

NINA RICCI

YVES SAINT LAURENT

VOGART



Ibargarai, 16
BERGARA
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1
ARRASATE
Tel. 79 29 95

J. M. Barandiaran Enp.
ORDIZIA
Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2
EIBAR
Tel. 20 05 22

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Izaskun Salazar,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastor-
za, Xabier Urteaga, Ederne Albi-
zu, Aitziber Murua, Rufino Irao-
la, Aitor Oizartzabal, Zorion In-
sausti, Dionisio Amundarain eta
Aitor Calvillo.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Gaztelun ikaratzeko moduko zepoa

Abenduaren 6an, Gaztelu
mendi magalean, Abaltzis-
keta eta Zaldibia herrien
mugan, zepo handi batek
harrapatu zuen Jexus Mari
Larekiren zakurra. Albistea
zepoa bera da, Asturiasen
hartzak harrapatzeko era-
biltzen zituzten zepoaren
neurrikoa bait zen. Esatera-
ko, zepoaren ahoak 60 zen-
timetroko diametroa du.
Argazkian ikus daiteke
neurria.

Oilagorretan ari zen La-
reki zaldibitarra. Zakurra
bizirik atera zen, baina zau-
ri handia egin zuen: hanka
batean 30 puntu eman ziz-
kieten.

Gizakia zepoaren gaine-
an jarrita ere, askatzen ez
den horietakoa da. Jexus
Marik ordu eta erdi pasatu

zuen, estaka eta harrien la-
guntzaz, bere zakurra han-
dik ateratzen. "Pentsa ni
harrapatu banindu, per-
tsona bat hiltzeko adinakoa
da!", esan digu Larekik.

Joxe Antonio Irastorza
Enirio-Aralar mankomuni-
tateko goardak adierazi di-
gunez, faunaren aurkako
arriskua baino gehiago, gi-
zakiarentzat duen arrisku
izugarria da. Goardaren
esanetan, era honetako ze-
poak, basurdeak harrapa-
tzeko jarriak izaten dira.

Aralar Parke Naturaleko
lurraldean izan da gertaera.
Zepo gehiago ere egon
omen daitezke. Lazoak ere
asko aurkitzen dira. Lareki
berak, egun horretan ber-
tan, lauzpabost kendu zi-
tuen.

BOTA BERTSOA



Alaitz Alustiza

**Gabonetako
kontsumismoa**

*Doinua: Neska zahar bat
tentatzen.*

Gabonak hemen dira
urtea badoa
denontzako degu hau
aste galakoa
jatun onak gerala
hori da gakoa
bi asten jaten dugu
urte osokoa.

Kontsumitzaile gaude
gazte ta aitona-amon
diru gastatzeari
bait diogu emon
esaera zahar batek
honelaxe zion
zerbait denean bom-bom
ta ez denean egon.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Berriro ere engainatu gaituzte

Oso ondo dakigu PNV eta EAren jarrera gure senide presoekiko. Beasaingo Udaltxean alderdi hauetako zinegotzi direnek egitekoa egin diote berriro ere Senideak taldeari.

Joan den azaroaren 14ko udalbatzan gure senide presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidearen aldeko mozioa onartu zuten partidu guztiek PP eta PSOEn ezezkarekin eta era berean erabaki honen berri komunikabideen bitartez ematea erabaki zuten. Abenduaren 2an gauden arren, azken hau ez dute oraindik bete.

Udalbatza horretan Senideak-ek hainbat galdera egin zituen:

- Zer egin behar zen Joxe Miel Azurmendirekin, 18 urte baitaramatza espetxeratu eta kondenaren 3/4ak beteak dituenek kalean egon behar bailuke.

- Txemi Arteaga, Albaceten preso badago ere, abenduaren 3an insumiso bezala epaitu behar dutenez Langraitza ekarri dutela eta, ea zer egitea pentsatua duten Txemi Euskal Herrian utzi dezaten.

- Josetxo Zeberioaren atzeratzea eskaeraren aurrean zein jarrera hartu behar zuten, eskari hori hainbat nazioarteko erakundek ongi ikusten dutela jakinik.

- Zer egin behar zuten Josu Lopez Castañares Euskal Herria traslatatua izan zedin, eta horrela bere senideek 45 minutuko bisita egiteko 2.000 kilometro egin behar izan ez ditzaten. Eskari hau Juan Mari Insaustirengana ere zabaltzen da Frantzia atxilotua izan ondoren egoera berean aurkitzen baita.

- Azkenik, Jokin Alda-nondori buruz ez genuen ezer esan nahi izan, insistitzez Burgosko espetxetik hurrutiago dagoen batetara eramango duenaren beldurrez.

Jon Jauregi alkateak udalbatza horretan esan zigunez, galdera hauen erantzuna astebeteko epean izango genuen.

2 aste igaro ondoren eta jaun honen erantzunik izan ez genuenez, gure senide presoen argazkiekin azaroaren 28ko udalbatzara joatea erabaki genuen.

Gure iritziz udalbatza hau lotsagarria izan zen erabat, erregru galderetako tarterik ez izatea salatu nahi dugu, herri honen ordezkariak direla dioten hauek, gure senideak Euskal Herria traslatatuak izan daitezen eskatzeko Bilbon egin behar zen manifestazioarako deia egingo etzute la zioen idatzia irakurri baitzuten, astebete lehenago, DVko kronikan, bahuak dauden eta gure herrikoak ez diren 2 pertsonen askatasuna eskatzen zuen manifestaziorako deia egin zutelarik.

EA eta PNVkoei esan nahi diegu, udaltxean presoen gaia aztertze osoa den batzordean Senideak egongo balitz jakingo luketela zein egoeratan dauden espetxe ezberdinetan dauden gure senide presoak.

Baina azaldu duten burugogorkeria ikusirik galdera bat bakarrik daukagu: Gure senideak eta gu geu, baliabide ekonomikorik ez izateagatik, 2. motako pertsonak al gara?

Artikulu hau irakurtzen duenak atera ditzala kontuak eta irakurtzean alferrik galdu duen denboragatik barka diezagula.

Beasaingo Senideak

Bertsolaritzaz

Sortu da, hemen da, bai, polemika. Euskaldunon Egunkarian Amatiñok idatzitako artikulu bat dela eta ez dela, bertsolaritzaz, Bertsozaleen Elkarteaz eztabaida sortu da.

Gezurra erabiliz, Amatiñok piztu duen suari ederki erantzun diote bertsolaritzaren alde lanean gogor ari direnek (Jon Sarasuak, Laxaro Azkunek, Inaxio Usarralde, Rufino Iraolak...): gainetik pixa egin eta itzaltzen saiatu dira batzuk eta ikatza botaz sua indartu duenik ere bada.

Kultur munduan lanean dihardugunok horrelako erasoetara ohituta egon beharko genuke, ohitura kontua bada, etengabe ari baikara eztenkadak jasotzen.

Ohiturak ohitura eta eztenkadak eztenkada, polemika honi guztiari etekin positiboa atera nahiz, goierritarro laguntza, bertsolaritzaren aldeko laguntza, eskatuko dizuet nik idatzi honen bitartez.

Euskara eta euskal kultura indartzeko landu beharreko arloa denez bertsolaritzarena, guztiontzat dago zeregina: haur, gazte eta heldu, emakumezko eta gizonezko, alderdi politiko bateko zein besteko, langabetu zein enpresa-gizon, gizen zein argal...

Lagundu nahi baduzu, baina zertan eta nola ez baldin badakizu, adibide batzuk emango dizkizut:

1- Etxekoak bertsozaletzeko, familia giroan egin daitezkeenak: irratiz ematen dituzten bertso-saioak entzun eta komentatu; bertso zaharrak eta ez hain zaharrak, mahai inguruko ospakizunetan kantatu; seme-alabak Ordiziako Bertsolari Eskolara joan daitezen animatu

(ez dira denak bertsolari egingo, baina bertsozale bai!).

2- Zure herrian edo inguruan antolatzen diren bertso-saioetan lagundu: antolaketa mailako iritziak emanez, sarrierak salduz, txartelak jarritz, aretoak prestatuz, gaiak jarritz...

3- Gaijartzaile taldeko partaide egin eta gaiak jarri eta saioak aurkezten lagundu.

4- Bertsozaleen Elkarteak bazkide egin: urtean 4.000 pezeta ordaintzearen truke hainbat informazio (buletinak...) eta liburu bat urteko ('Bapatean') jasoko dituzu, txapelketako saioetako sarrierak merkeago izango dituzu, Elkarteari proposamenak egin eta martxan dituen proiektuei buruzko iritziak eman ahal izango dituzu, besteak beste.

Lan asko dago egiteko eta lau adibide besterik ez dira horiek. Zer egin dezakezun eta zertan lagundu nahi duzun erabaki eta zure laguntzatxoari esker, bertsolaritza indartzeaz gain, saioak noiz, nola eta zertan "politizatu" behar ditugun elkarrekin erabakiko dugu.

Karnetik ez dizugu eskatuko eta atea zabalik duzue, berdin PP, EAJ, HB, EA, PSOE edota edozein alderditakoak zaretela ere, lanerako prest zaudeten guztiok.

Agurreko puntua hain serio bota gabe, lehengoan telebistaren gorabeheran lagun batekin ateratako ondorioaren berri emango dizuet: 'Hitzetik hortzera'-ri dentistak hortzetakoa eman eta hortz guztiak atera dizkio eta ordezkio "postizoak" jarri arte mutu egon beharko omen du...

Joxepa Madariaga (Lazkao)

TXANDAKA

Kontsumo ekologikoa

Gabonak (Goierriin, Eguberriak) badatoz. Jentilen kulturalan Eguzkiaren gorantzan (beherantzakoa amaitzean) egiten zen jaia eta kristautasunak bereztat hartu zuenean beste era batean ospatzen zen aro hau, gaur egun inork gutxik daki zer den. Olentzeroren nahi adina bertsio aurki ditzakegu: paganoa, kristaua, atea, politikoa, kulturala... Nahasmenaren harri pila hau apur bat txukunduko duen harginen bat berehala ez badator, erainkuntza kaotikoak izango ditugu hemendik aurrera.

Haatik, gauza bat badago argi: kontsumoaren sinbolo bihurtu dira Eguberriak. Kontsumismoarena esanda ere ez dut uste bekatu handia egingo genukeenik. Hori bai, gaur kontsumismoari beste hegi batetik begiratzen zaio: ikuspegi ekologikoak aurre hartuko dio guk geure garaian genuenari, hau da, ikuskera sozio-politikoari.

Kontsumoa, dirudienez, berez ez da guk uste izan genuen bezain txarra, ondo erosten jakinez gero. Neuk ere aitortzen dut kontsumoa, ekonomia, lana... gaur gaurkoz, hertsiki loturik daudela; ez da erraza bata puskatu gabe bestetik libratzea. Beraz, segi dezagun kontsumitzen, baina oreka dezagun saskia apur bat, gutxitxo eta gehiegi kontsumitzen dutenen artean.

Bestalde, naturak ahalik eta kalterik gutxien nozi dezan, kanpainak egin eta produktu ekologikoak promozionatzen dira. Eta, sarritan, beste erlijio baten baitatik egiten da: naturaren eskubideak aldarrikatu ohi dira. Naturari bost axola dio, ordea, mundua bihar bertan desagertuta ere. Eskubideak gizonok elkarri aitortzen dizkiogun zerbait dira; ekologia ere hor sartu behar da.

Rufino Iraola



Gabonetako loteriarik erosten al duzu?



Maria Dolores Iruin
52 urte, autoeskola irakaslea
Lazkaokoa

Piska bat, aurten inoiz baino gehiago. Erosi eta ingurukoen artean banatzea gustatzen zait. Tokatu berriz, inoiz ez zait tokatu.

Imanol Lasa
36 urte, teknikaria
lazkaotarra

Ez naiz zalea. Lanean eta ingurukoek erosten dutenez, parte hartzen dut. Tokatu ezkeron ni batere gabe ez geratzeagatik. Baina, inoiz ez dugu zorte hori izan.



Salome Oiarbide
60 urte, etxekoandrea
lazkaotarra

Beti erosten da zerbait. Gutxi dagoen tokitik ezin asko jokatu. Dendetan eta beti eskaintzen dituzte partizipazioak eta badaezpada ere erosi egiten dut, baina orain arte zorterik gabe.



Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikulua

Nagusia, 13
BEASAIN

Sta. Maria, 15
ORDIZIA

LIBURU AZOKA BEASAINEN

DISKO
BIDEO
JOKU

NOIZ: Abenduaren 10etik 22ra

NON: Kale Nagusia, 32

ORDUTEGIA: Egunero arratsaldez

Astearte eta larunbatetan goizez ere bai.

LAGUNTZAILEA: Udaleko Euskara Batzordea

ANTOLATZAILEA: GOIZTIRI



ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 19, 'Sospechosos habituales', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Trainspotting'. Ostirala 13: 22:15; igandea 15: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 16: 22:15.

'Condenada'. Larunbata 14: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Trainspotting'. Ostirala 13: 22:15, , igandea 15: 19:30 - 22:15; astelehena 16: 19:30.

'Tormenta blanca'. Larunbata 14: 19:30 - 22:15. igandea 15: 16:45.

'Dragon heart'. Ostirala 20: 22:15, igandea 22: 16:45 - 19:30 - 22:15, astelehena 9: 19:30.



'Sospechosos habituales' Brian Synger (EEBB, 95)

5 susmagarriek erreko-
nozimendu-bira batean egi-
ten dute topo, bertan talde
bat osatzea erabakitzen du-
telarik. Ondoren egingo di-
tuzten axio desberdinak ez
dira benetako ekintzaren
aurrerapausua baizik.

'Public Access' izeneko
terrorezko istorioarekin
'Sitges 93' bisitatu eta
'Sundance' zinemaldian sa-
ri bat jaso ondoren, Brian
Syngeren bigarren luzeme-
traia dugu honako hau. In-
spirazio handiko gidoi trinko
eta ondo josia duen pelikula
ganster-en zinemako tradi-
ziorik onenaren jarraitzaile-
a eta maitasunez zuzendu-
tako bigarren mailako akto-
re talde batez osatua.

MUSIKA

BEASAIN:

Abenduak 20, Anje
Duhalde, Usurbe Antzo-
kian, 22:30etan. (Informa-
zio gehiago 10. orrian).

Abenduak 21, Loinatz
abesbatzaren eta Musika
Eskolako Metalezko bos-
kotearen Gabonetako kont-
zertua, 20:30etan, Parro-
kian.

ZALDIBIA:

Abenduak 27, EH Su-
karra, Mcd, Potraino, Su ta-
gar, Parabellum, Beer
Mosh, Pilotalekuan,
22:30tan. Sarrera 1.200 pe-
zeta. (Informazio gehiago
25. orrian).

BERTSOAK

ZALDIBIA:

Abenduak 14, bertso-
afaria Lazkaotxe tabernan,
A. Egaña eta S. Lizasoren
eskutik. 3.000 pezeta.

ERAKUSKETAK

ATAUN:

Abenduaren 22tik 29ra,
'Ekilore, gure arbasoen on-
dare mitikoa' erakusketa,
Udaletxean.

BEASAIN:

Abenduaren 13tik 22ra
arte, 'Emakumeak karteletan'
erakusketa, Emakunde
eta Udaleko Emakumezko-
en Ordezkaritzaren esku-
tik, Usurbe Antzokiko era-
kusketaretoan.

Abenduaren 14tik au-
rrerara, Aterpe Tabernaren
V. pintura lehiaketan auke-
ratutako lanen erakusketa.

ORDIZIA:

Abenduaren 15era arte,
'Zabaltzaileak: Leizaola,
Lizardi, Aitzol, Rezola'
erakusketa, Barrenan.

Abenduaren 15era arte,
'Araba Errioxako ardoak'
erakusketa, Barrenan,
'Araba Errioxako IV. Aste-
a' ren barruan.



Legazpi Kalea, 4

© 88 04 06

ORDIZIA



ILEAPAINDEGI
MISTOA

Zoriona eta eguberri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN



Xikel

ARMAIRU
ENPOTRATUAK

NEVES

BANATZAILEA

- ✓ Barnizatuak
- ✓ Lakatuak
- ✓ Espilluarekin
- ✓ Persianilla

Senpere Merkatalgunea - 38 lokala
Erakusketa: 161606 - Mugikorra: 908 772107
BEASAIN

HITZALDIAK

ITSASONDO:

Abenduak 13, 'Gazteen indarra... non?; Gazte Asanblada... non?' solasaldia, Gaztetxean, 19:30etan.

ORDIZIA:

Abenduak 13, Joseba Rezola, Gerra Zibila eta Erresistentziari buruzko hitzaldia, Eduardo Jauregiren eskutik, 20:00etan, Barrenan.

ATAUN:

Abenduak 14, 'Sagarra eta sagardoa'-ri buruzko hitzaldi-afaria, Urbitarte Sagardotegian, 20:00etan.

IKUSENTZUTEKOAK

ATAUN:

Abenduak 21, 'Itsasoei begira', Marronen eskutik, Aia auzoan, Meza ondoren.

BESTELAKOAK

BEASAIN:

Abenduak 13, Itziar Zubizarreta ipuin-kontalaria, Kultur Etxeko liburutegian, 17:30etan.

Abenduak 18, Irakurketa suspertzeko emanaldia Arrate Leunda ipuin-kontalariarekin, Ezkiaga Auzo Etxeko liburutegian, 17:30etan.

Abenduak 19, Aingeru Epaltza idazlearen 'Tigre ehizan' liburuaren aurkezpena Kultur Etxeko liburutegian, 19:30etan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 15, Izarraitzera (1.026 m.).

Abenduak 22, Murumendira.

Idiazabalgo mendizaleak:

Abenduak 15, Ataun-Sagastarri.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Lana:

☐ Dekorazio proiektuak egiten ditut modu onean taberna, etxe, dendetan. Ordenagailuz eta modu klasikoan. Deitu 88 42 16 telefonora, 14:00etatik 18:00etara. Nekane.

Salerosketak:

☐ Zeharkako xirula salgai, Yamaha markakoa, oso egoera onean. 65.000 pezeta. Atlas "metodo de flauta" liburua oparitzen da. Deitu 882589 telefonora (goizez).

☐ Piano elektrikoa salgai, altzari eta guzti, Klavinova (Yamaha) markakoa, ohizko pianoaren tekladu berdinekoa (88 tekla). Oso egoera onean. 195.000 pezeta. 88 25 89 (goizez).

☐ Bertako babarrunak salgai. 88 18 02. Olaberria.

☐ Ezkontzako emaztegaiaren soinekoa salgai, bere kankanarekin (3 arodua) eta eskularruekin. Zerbaki neurria 48. Kolore marfila, kola luzea, bordatua eta perladuna. Hau guztia prezio bikainean. 806552 (Amaia).



GOARDIAKO FARMAZIAK

19: Larnaga.

20: Cuesta.

21-22: Azpilikueta.

23: Arriola.

24: Urbizu.

25: Atorrasagasti.

13: Urbizu.

14-15: Arriola.

16: Atorrasagasti.

17: Azpilikueta.

18: Jauregi.

BIÑASPRE

USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA

Opariak
Gabonak 96

K. Nagusia, 8

88 13 37

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

16 01 20 Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN


GEMA
OINETAKOAK

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 7

88 94 45

BEASAIN



Aterki eta poltsak, bidaietako artikulua,
konponketak, gerrikoak, etxeko diseinuak...

San Inazio, 2


BEASAIN

16 09 65

Errementari, 5

TOLOSA

67 41 43



Aitor Oñartzabal
Goierriko EGI

*“Joseba Rezola
eta bere
belaunaldia eredu
paregabe bat dira
guretzat, baina
irainduak eta
baztertuak izan
dira kupidarik
gabe. Lapurtu
egin digute gazte
euskaldunoi gure
herriak eman
duen belaunaldi
zoragarriari
buruzko
informazioa eta
atxekimendua”*

A skotan badirudi ere-
du guztiak txiki-txiki
egin zaizkigula gaz-
teoi: Politikari asko eta asko
ipurtzoloraino zikindu eta us-
teldu dira, kulturgintza mun-
dua “erdijainko” handiuste
eta petralez josita ageri zaigu.
Unai Parot 500 kilo amosalez
beteriko furgoneta batean ha-
rrapatzen dute, kirolariak za-
legoa lau duoren truk saltzen
dute, Vaticanon ez dira ente-
ratzen. Gunila von Bismarck-
ek “sarao” bat antolatzen du
Marbellan Zaireko “beltz
gaixoeekin” elkartasuna adie-
razteko eta, gainera, Kurt Co-
bain-ek bere buruari tiro egi-
ten dio...

Euskal Herrian eta inguru-
ko lurraldeetan inpresentable
kuadrila amaigabe bat bista-
ratzen zaigu, bakoitza bere
zilborrari begira eta albokoa
majo izorratzen. Gazte eus-
kaldunok gure herria nondik
nora joango den ere ez dugu
batere argi ikusten, eta asko
eta askok abertzaletasuna
odolean daramagularik, sen-
timendu horri errealitatean
plasmazio bat ematea ezinez-
ko egiten zaigu egoera nahasi
honetan. Horregatik, geure
bizitza aurrera ateratzeko
ereduak oso beharrezkoak
zaizkigu, eta oso zailak dira
topatzen.

Joseba Rezola eta bere be-
launaldia eredu paregabe bat
dira guretzat, baina irainduak
eta baztertuak izan dira kupi-
darik gabe. Lapurtu egin di-
gute gazte euskaldunoi gure

Joseba Rezola: bere burua herriari eskaini zion gizona

herriak eman duen belaunaldi
zoragarriari buruzko infor-
mazioa eta atxekimendua.
Eredu arrotz eta dogmatiko
batek itsututa, asko eta askok
mesprezatu egin dituzte eu-
ren gurasoak: “zaharkituak”
eta “burgesak” ziren balio
batzuegatik hil ziren. Eta
belaunaldi berriek ahan-tzi
egin dute beraien aiton-amo-
nen sakrifizioa.

Gudaria

1936ko gerran aritu zen gaz-
te abertzaleen belaunaldi
osoa Euskadiko mendietan
eta Espainiako gartzeletan
gelditu zen betirako. Bere
odola itxuraz alferrik izan
zen isuria. Hala ere, historiak
bakoitzari merezi duena es-
kaintzen dio normalean, eta
belaunaldi haren sakrifizioak
euskal abertzaletasunaren
izena garbi mantendu du fa-
xismoaren nahiz beste edo-
zein totalitarismoren kutsa-
durarengandik.

Eta Joseba Rezola, gerra
hartan modu harrigarri bate-
an borrokatu zen Eusko Gu-

darostearen buru izan ge-
nuen. Joseba Rezola ordizia-
rra; goierritarrok historia
guztian zehar izan dugun gi-
zonik garrantzitsuenetakoa.
Eta nork dauka gure bailaran
Josebari buruzko gutxiengo
informazio bat?

Nork daki aurreneko Eus-
ko Jaurilaritzaren Defentsa
Idazkari Orokorra izan zela
1936ko gerran? Nork daki
bere esku egon zela Eusko
Gudarostearen antolaketa?
Nork daki gerra amaitu ondo-
ren euskal erresistentziaren
buru izan zela? Nork daki
Leizaolaren Lehendakariorde
izan zela?

Dena den, Joseba Rezolak
bere bizitza guztian zehar
egin zuen gauzarik hunkiga-
rriena gogorarazi nahi dugu
oraingo honetan. Gerra zibila
Euskadin amaitu zenean, be-
re karguarengatik Santande-
rretik aldegitteko aukerari
muzin egin zion (heriotzera
kondenatua izango zela ziur
jakinda), eta bere gudariekin
gelditzea erabaki zuen Jose-
bak. Antzeko gauza bat egin
zuen Ajuriagerra handiak,
Saratik Santoñara apropos jo-
an zenean (gure Don Joxe-
miel Barandiaran testigu).

Horrelako jokabideek fro-
gatzen dute abertzale baten
egiazko izaera. Herri honek
gutxitan eman ditu horrelako
gizonak.

Ez ditzagun inoiz ahan-tzi.

Ez dezagun inoiz ahan-tzi
Joseba Rezola Arratibel.

GESTORIA BIK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



bebidas UGALDE

Aundizkako eta txikizkako edari banatzailea

Tfnoak: 88 12 26 - 16 05 74 Faxa: 16 05 74
Industrialdea, 22

ORDIZIA

ERREZETA



Juanita Etxezarreta
Aldapa jatetxea
Ordizia

ESPINAKA ETA AZENARIO PUDINA

Osagaiak: Kilo 1/2 espinaka, kilo 1/2 azenario, litro 1/2 esnegain, 12 arrautza eta gatza.

Azenario eta espinakak bakoitza bere aldetik oso gutxi egosi. Ontzi batean arrautzak eta esne gaina batitu. Nahasketa 3 zati berdinetan banatu. Zati bati azenarioa eta besteari espinakak gehitu. Bi nahasketak bakoitza bere aldetik ondo batitzen dira.

Molde bat gurinarekin igurtzi eta 3 pisu egin 3 nahasketekin. Labean sartzen da bainu marian ordu erdiz 180° etan.



Zorion Insausti
Dietetikan diplomatua

Bati baino gehiagori, gai honek, buruhauste dextente sortu izan dio. Pertsona bakoitzaren egoera ezberdina izan daiteke (haurduna, kirolaria, haurra...), hala ere proteinaren beharra ez da guk uste dugun bezainbestekoa. Oso garrantzizkoa da proteina nahikoa jatea, baina gaur egun gehiegi jaten dugu. Ikerlariak ere pentsakera horretakoak dira: beren ikerketen emaitzen arabera, jaten dugun kalori

AHOLKUA

Proteinak

guztien % 15 proteinak izan behar dute. Orduan zera pentsatu dute: aholku gisa eta hanka ez sartzeko guztiontzat, % 15 aholkatuko dugu. Ia janari guztiek dute proteina (ogiak ere), horrela ez da kezkatzekoa horrenbeste, denetarik jaten dugunean.

Beste alde batetik, kualitatea begiraturik janarietan. Egia da arrautzak, eta ondoren haragiak eta arrainak osatzen dituztela lehen postuak proteina kualitatean. Hala ere, nik us-tez, egunean zehar hauetako janari bat behin jateare-

kin nahikoa da.

Laburpen gisa, denetarik jan behar da. Baina arrazoi ezberdinengatik (ekonomikoak, kulturalak, sozialak...) animali janariak (proteinetan aberatsak) gehiegi jaten ditugu eta ez ordea barazkiak (kalitate bajuagoko proteinak dituzte).


Bukatzeko, gaur egundaino, ikerketak zuzendu dira proteina gutxi jateak ekar ditzakeen ondorio txarrak. Baina ez da begiratu proteina gehiegi jateak ekarri ditzakeen ondorio txarrak. Osasuntsu egoteko, ez da janaria bakarrik begiratu behar, beste faktore batzuk ere badaude. Oso konplexua gertatzen delarik, nork duen osasuna eta zergatik jakitea.



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoiaaren tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
© 88 9350 Faxes: 880688

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariaratz, 4
Tfnoa.: 88 86 84 BEASAIN

DEKORAZIOA

- ✓ Lanparak
- ✓ Lore lehorrak
- ✓ Opariak

Urdaneta, 25 ORDIZIA



JOSTAILU DENDA

- ✓ Jostailuak
- ✓ Joku didaktikoak
- ✓ Pelutxeak

Urdaneta, 24 ORDIZIA



Errioxako ardoaren eta Eguberrietako azoka bereziak Ordizian

Datozen egunetan bi azoka berezi izango dira Ordizian: Errioxako ardoarena eta Eguberrietako azoka bestea. Lehenengo abenduaren 14 eta 15ean; eta bigarrena, abenduaren 24an.

IV. Errioxako arabarreko Ardoaren azokaren egun handiak larunbata eta igandea izango dira, baina asteen zehar hainbat dastaketa egiteko aukera izan da, adituen eskutik. Ostiralean, abenduak 13, esaterako, Itxaropena elkartean, 19:30etan, Heredad de Ugarte bodegaren ardoaren aurkezpena egingo da. Dena den, larunbatean, 11.30etan Udaletxeko Batzar-aretoan aurkeztuko da azoka. Igande gauerarte, 16 bodegetako ardoak dastagai egongo diren postuak izango dira, Enparantza Nagusian. 12:00etatik 14:30etara eta 18:00etatik 21:30etara izango da azoka irekita. Azokak irauten duen bitartean, bertsolari,

trikitilari, fanfarre eta abar izango dira. Barrena jauregian ere, 'Arabako Errioxa ardoaren erakusketa: herriak, etiketak, botilak' erakusketa izango da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara.

Ardoaren azoka berezi hau, ohi baino hilabete beranduago dator aurtien. Horrek noski, alde onak eta txarrak ditu antolatzaileen ustez: batetik, ardingin gehienek ardo berria aurkezteko aukera izango dute; baina bestetik, Gabon inguru honetan ekintza ugari izaten da gure herrietan.

Eguberri bezperan

Eguberrietako azoka bestalde, aurtien, Eguberri bezperan izango da, abenduaren 24an hain zuzen ere. Lehiaketa bereziak izango dira. Antzar, kapoi, errege-sagar, fruitu lehorrak, ardi, ahari... txapelketak eta erakusketak izango dira.

Etxegarate

Gipuzkoako Diputazioak eta Nafarroako Gobernuko Etxegarateko bikoizketa egiteko Europar Batasunari dirua eskatzea erabaki dute, bi erakundeek duten diru arazoa dela eta.

Sabotaiak

Joan zen asteburuan 3 sabotaia izan ziren Goierriin. Abenduaren 6an, Zegaman, Gipuzkoako Diputazioko autoa erre zuten, kristalak hautsi eta gasolina bota ondoren. Abenduaren 7an, aldiz, Seguran Kutxaren sukurtsala eta Ordizian Grupo Vitalicio aseguru etxea erasotu zituzten.

Txemi Arteaga

Beasaindar presoak gose greban hasi da. Langaitzen dago une hone-tan Arteaga, intsumitu izateagatik abenduaren 3an epaiketa izan baitzuen Gasteizen. Gose greba, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eskatzeko ekimen-na da.

Aitziber Esnaola

Abenduaren 1ean Salbatorren izandako auto istripuan hil egin zen Aitziber Esnaola beasaindar gaztea. Istripu berean 25 urteko R.M.A., 24 urteko M.G.A. eta 22 urteko A.M. ordiziarrek larriki zauritu ziren.



Azurmendi eta Aldonondori omenaldia

Joxe Miel Azurmendi kartzelan sartu zutela 18 urte dira eta Jokin Aldanondo 10 urte. Hori dela eta, Beasaingo Amnistiaren Aldeko Batzordeak omenaldia eskaini nahi die bi preso beasaindarrei eta abenduaren 20rako jaialdia antolatu du. Beasaingo Usurbe zinean izango da, gaueko 10.30etan hasita.

Jaialdiaren lehen zatian, bertsolariak, parodiak, dantzariak, txalapartariak eta irudi muntaia izango dira ikusgai. Jarraian, Anje Duhalde kantariaren emanaldia izango da.

Sarrerak aurretik eros daitezke, 800 pezetan. Egunean bertan, 1.000 pezeta kostako dira.

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabe
Larraitx bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48



GOIERRITARRAK Goiekirekin bilera

Abenduaren 2an GOIERRITARRA aldizkariak bilera egin zuen Goiekirekin. Besteak beste, udalek eman beharreko diru-laguntzaren hazkuntzarik izango ote dugun edo ez aztertzea, eztabaidatzea zen asmoa. Dirurik ez dagoela argudiatuz, azken hiru urteotako diru kopuru berbera, 75 pezeta biztanleko, mantentzea erabaki zen. Argudio horrekin batera, GOIERRITARRAren aniztasun ezaren salaketa ere egin zuten.

Bileraren emaitza zuek, GOIERRITARRAren irakurleok, jakin dezazuen egoki iruditu zaigu. Bide batez, zuen iritzia ere zinez eskertuko genuke. Dionisio Amundarain Goierritarra Kultur Elkarteko lehendakariak jarraian duzuen gogoeta egin du.

GOIERRITARRA, Etxegarate, aniztasuna

Badirudi GOIERRITARRA aldizkarian aniztasuna edo pluralismoa falta dela. Agian, ETBn, Euskal Telebistan eta gainerako komunikabideetan eskas ematen bide den kirola falta zaio.

Badirudi, GOIERRITARRA-ri MVLN/ENAMren, hots, HBren usaina dariola. Adibidez, azaroaren 29ko alean, 10. orrian, "Goieki garapen agentzian **zenbait alkatek** (azpimarratua nire) (HBkoak ez) bilera

izan zuten Etxegarateren gaia aztertzeo..." idatzi zuten. Badirudi, ustezko usain horren eraginez jokatu ezean, "Goierriko Alkateek" edo antzeko zerbait esan beharko zuketela. Beraz, badirudi, lapsus calami, hots, presaka egindako erredakzio-akatsa ez, baizik intentzio partidista osoaz idatzia izan dela aipatu "zenbait alkatek" hori.

Badirudi, GOIERRITARRA-ren aniztasunak edo pluralismoak ez lukeela oinarritu behar ahalik eta jen-

de gehienari idazlantxoak eskatzean, baizik eta betiko lau katutxoek (barkatu doakizuenok katifikatiboa) gustu guztien gusturako egingako idazlanetan. Oi pluralismoaren bitxiaren bitxia!

Badirudi, Goierriko Udaletatik dirulaguntza handiago jasotzeko, hamabostekari hobe ezina bihurtu beharko litzakeela alde aurretik GOIERRITARRA, aireaz elikatutako jendeak eginga, eta 12. mendeko baliabideen laguntzaz gainera. Zein ote lehenagoko, arrautza ala oiloa?

Badirudi, zenbait jendek GOIERRITARRA-rekiko omen duen pertzepzio edo uste kaxkarraren ondoan, beste hainbaten uste diferenteak ez duela balio. Oi kritika razionalaren eta demokratikoaren gakoa!

Badirudi, pertzepzioak pertzepzio, bizpahiru urtetan harpidedunak (doakoak kasu honetan) bikoiztu izanak ez duela ezer esan nahi hamabostekariaren kalitatearen usteaz. Oi aldagai objektiboen balioaren balio hutsa!

Badirudi, orain arteko doakotasuna (aldizkaria ordaindu gabe jasotzea) hautsirik, kobratzen hasi behar dela GOIERRITARRA. Badirudi, horrek erakutsiko duela aldizkariaren kalitatea. Badirudi, batek kalitatea duen ala ez ikusteko, doakotasuna hautsi behar hori

herri-aldizkarietarako bakarrik doakiela, eta ez ETBri, ez Euskadi Irratia-ri, ez Jauralaritzako Berripapera-ri, ez Jauralaritzako IVAPeko Administrazioa Euskaraz-i, ez beste hainbat eta hainbat argitalpen eta ekintzari. Badirudi, ekimen publikoko izaiteak kalitateaz berezko bermea edo garantia dakarrela. Oi koherentziaren razionaltasuna!

Badirudi, ordea, horrelako arazoetan razionaltasuna, zientifikotasuna, koherentzia... tokiz kanpo dardela. Oi aro modernoaren ajeengandiko postmodernismoaren indarra!

Badirudi, badirudi, badirudi... GOIERRITARRAko zuzendaritzakoek Goieki-n Goierriko alderdi politikoen ordezkarietara (salbu HB eta PP) abenduaren 2an egindako topaketan "badirudi" askoren zerrenda ateratzen mahai gainera. Guztia, ordea, dirulaguntza handiagoren eskaria mahaipen gelditzeko; orain arteko kopurua ordaintzekotan, ordea, nahiz aldizkaria kobratzen hasi.

Horiek horrela, eta zoritxarrez, GOIERRITARRAko zuzendaritza aztertu beharrean gertatuko da datoren urtean hamabostekaria hein batean kobratzen hasi ala ez. Beti ere, maila apaleko kuota ezarritik, eta zerbitzua hobetzeko asmo biziak.

Dionisio Amundarain

A HOLKULARITZA

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.

GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Gabon zoriontsuak denoi !

☎ 16 00 65

Faxa: 16 03 59



Proba itzazu

"Beasaingo Martintxoak"

Nagusia, 11

☎ 88 82 37

BEASAIN

GOIERRIKO AITON-AMONEN EGOERA ETA PREMIAK AZTERTU DIRA: "Erabateko kontzientziazioa falta da hirugarren adinari dagokionean"

Ignazio Perez de Mendiguren ordiziarrak eta Amagoia Muruamendiaraz lazkaotarrak Goierriko aiton-amonen egoera aztertzen duen lana aurkeztu berria dute. Mediki geriatrak dira biak, Gerontologia psikosozialeko masterra egina biek ere. Urte gutxi barru, hirugarren eta laugarren adinekoen arazoa, gizarteko arazorik larrienetakoa izango da bi adituek adierazi digutenez.

- ZER LAN EGIN DUZUE ETA ZERTAN OINARRITURIK?

- Gauza jakina genuen, geure eguneroko esperientziaz, gizartea, hau da, jendea, geroz eta zaharragoa dela, eta, jakina, hori gauza garrantzitsua dela uste dugu, alde askotatik.

Hau dela eta, egoera hori bera geure eskualdean eza-gutu nahi genuen. Horretarako hainbat gauza edo puntu ikertzea edo aztertzea pentsatu genuen. Batetik geure aiton-amonak zein egoeratan dauden aztertu,



Adinekoek eguneko zentrua aukeran izatea beharrezkoa ikusten dute Amagoia eta Inaziok.

eta zein baliabide sozial eta sanitario dituzten, hau da, gizarteak nola laguntzen dien osasun arazoetan eta sozialetan. Bestetik, jakinik zein baliabide dituzten, zein eta nolako laguntzak behar-ko lituzketen, aztertu nahi genuen. Horrela, hori guztia jakinik, bizi kalitate on bat, hau da "asistentzi integrala" lortzeko moduan izango ginatekeela pentsatzen genuen.

- ZENBAT DENBORAN EGIN DUZUE LANA?

- Bi lagun aritu gara honetan. Biak lanean ari gara gutxi-asko. Beraz gure lanetik kanpo egin izan behar dugu ikerketa.

Lehenik, Goierri eskualdeko egoera analizatu nahi eta behar izandu genuen. Gero, ondorioak ateratzen saiatu ginen.

Horrek guztiak denbora asko eskatu digu, eta gure lan hau burutzen bi urte erdi eraman dugu.

- ZEIN DA IKERTZEN DUZUEN EREMUA EDO ESPARRUA?

- Gure lana, Goierri eskualdera mugatu dugu, baina Goierri zentzu zabalean hartuz, hau da, Legazpitik Legorretaraino. Hemen daktatzagun datuak ordea Goierri beherera mugatzen dira, hau da, Ormaiztegitik Legorretara.

Horiek horrela, 96ko datuen arabera, gure lanak, 40.080 biztanle hartzen ditu, eta horietatik 6.839 dira 65 urtez gorakoak, hau da % 17,6.

Kontuan hartu beharreko datua da, portzentaia hori 1991n % 12,7-koa zela,

1994an % 15,7 eta 1996an, esan bezala, % 17,6.

- ZEIN DA EGOERA ETA ZEIN KEZKARIK HANDIENA?

- Oro har, gure aiton-amonen egoera nahiko ona da. Baina, esan behar da badagoela zenbait jende premia handiak dituen, eta, beraz, baliabide ugari behar dituen. Azken hauek laugarren adinekoak dira, hau da, 80-85 urte bitartekoak edo zaharragoak.

Kezka nagusiari dagokionez, berriz, esan behar da, askotarikoa dela, hau da, adar asko dituela.

Batetik, adinekoari beren etxean edo familian bizitzen lagunduko lioketen baliabideen beharra ikusten da (hobeto esanda, tarteko baliabideen beharra). Horrek esan nahi du familiak eguneko zentrua beharko luketela adinekoa egunez, zentru hartara bidali ahal izateko. Horrez gainera, egonaldi erdi-luzerako ospital baten beharra esan nahi du, hau da, gaixotasun handi bat izan ondoren, sendatzeko denboraldia non pasatua izateko ospitalea. (Adibidez, Zumarragako ospitalean tronbosiz bat jasan eta gainditu ondoren, gero errehabilitatu ahal izateko beste ospital-egoitza bat beharko

mujika
OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11 - Tef. 88 27 16

BEASAIN



MUJIKA
Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 80 15 07 - 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

litzateke erabat sendatu arte).

Bestetik, —eta oso garrantzitsua da hau— adinekoaren familiak ere ardura eta laguntza bereziak behar ditu. Izan ere, gizarteak bere gain hartu beharko lukeen adinekiko ardura familia horrek hartzen baitu beregain.

- ZEIN PROPOSAMEN DITUZUE?

- Gure proposamena ere askotarikoa da, batez ere, ordea, hiru puntutan adieraziko dugu:

● Batetik zerbitzu asko falta dira adinekoei dagokionez, ezin bestean bete beharrekoak.

● Bestetik, adinekoen familiari zuzenduriko programak hartu behar dira kontuan.

● Hirugarren, azkenik, eta aurreko bi puntuak bete ahal izateko, beste arazo hau azpimarratu nahi dugu: jadanik badauden eta sortu behar diren zerbitzu sozial eta sanitarioen koordinazio handia (inter eta intrasektoriala) behar dute, hau da,



65 urtez gorakoen portzentaia 1991n % 12'7koa zen; 1994an % 15'7koa eta 1996an % 17'6 koa.

batetik zerbitzu bat beraren barruan jende guztiak koordinaturik egon behar du, eta, bestetik, zerbitzu ezberdinen arteko jendeak ere, beren artean koordinaturik egon behar dute. (Adibidez, batetik, sendagileak eta erizainak koordinaturik egon beharko lukete, bertatik sendagile eta erizainak, koordinaturik egon beharko lukete dagokion gizarte laguntzailearekin).

- ZER HARRITU ZAITUZTE GEHIEN, TXARRERAKO EDO ONERAKO?

- Alde txarrari buruz, harridura eta pena esan behar-

ko genuke. Inongo herritan ez da ageri inolako programaziorik hirugarren adineko jendeari buruz. Esan nahi da, erabateko kontzientziazio falta dagoela gure gizartean aipaturiko sektore horri buruz.

Alde onari buruz, familiar gizatasun handia ageri da oraindik ere gure artean, eta hori adinekoei emandako tratuan agertzen da nabarmenki. Baina gorago esan bezala, familiak ere bere mugak ditu, borondate ez baita aski.

Loinaz Agirre

Forum 2005

Goiekik, Goierriren garapen agentziak, 'Forum Goierri-2005' ekimena jarri du martxan. Ama goia Muruamendiaraz eta Ignazio Mendigurenek Goierriko adineko pertsonen buruz egindako ikerketaren aurkezpenean eman zion hasiera, abenduaren 4an.

Forum honetan goierritarrentzat interesgarri edo kezkak sortzen ditun gaiak aurkeztu, aztertut, eztabaidatu eta hausnartu nahi dira. Etorkizuneko gaiak eta arazoak jorratu nahi dira.

Maiztasun jakinik ez du izango du, interesaren arabera izango da. Datozen aldietan jorratu nahi diren gaiak hauek dira besteak beste: errepideen azpiegitura, lana, familia...

Forum hauetara gai bakoitzarekin harremana duten goierritarrak gonbidatuko dira.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



UNANUE UME JANTZIAK

Puerikultura

Nafarroa Etorbidea, 4
Tfnoa.: 88 71 94
BEASAIN

JUANITA ARANBURU OINETAKOAK

*Gabon zoriontsuak opa
diskizuegu guztioi!*

Kale Nagusia, 36
☎ 88 01 27 BEASAIN

MIRENTXU LIBURUDENDAⁿ

*Zure gustoko jaiotza eta gabonetako apaingarriak aurkituko dituzu
Gabonetako oparia aurkitu ezinik bazabiltz gure dendan aholkatuko zaitugu
Gabon zoriontsuak denoi!*

Nafarroa Etorbidea, 7
Kale Nagusia, 1

BEASAIN

☎ 88 04 55
☎ 88 14 57

FRANCISCO GARMENDIA NEW YORK-eko BRONX AUZOKO GOTZAINA:

"Jainkoak opariak emanaz ospatu nahi du 2000. urtea"

Urtero etortzen da Francisco Garmendia Lazkaoko jaiotetxera. Tartetxo bat kendu, eta "euskara ahaztua" daukala esan arren, ederki moldatu da. "Jainkoak ni apaiz izatea nahi zuen, eta aurrera". Horrekin batera, New Yorkeko Bronx auzoko gotzaina, "Jainkoak horrela nahi izan zuelako naiz. Eta Jainkoari eskerrak, ni pozik nago beti", esan digu. Jubilatu ere, "Jainkoak nahikoa da esatean jubilatuko naiz. Ordurarte segi aurrera".

New Yorkeko Bronx auzoan bizi da eta oso arrisurtsua omen da. "Kontuz ibili behar zara baina behin ere ez dut beldurrik izan. Alkateak eta politikoek nahi

izaten dute, Eliza beraien gauzetan sartzea. Bilera batean egitasmoak azaldu zizkidaten. Oso polita zela, baina gauza bat falta zela esan nien: Jainkoa. Politika-ko gauzetan Jainkorik ez badugu sartzen, behera joango gara. Apaiza oso estimatua da Estatu Batuetan. Giuliani alkateak beti eskatzen dit erre-gutzeko, hemengo alka-teek eta ez dut uste horrelakorik egiten dute-nik", zehaztu digu.

Eliza Katolikoak du EEBBetan presentziarik eta indarririk handiena. "Baina orain erlijio denak, protestanteak, judioak... elkartzen hasi gara. Aita Santuak esan digu 2000. urterako prestatu egin behar garela. Jesukristo jaio zela 2.000 urte izango dira eta Jainkoak erregaloak omen ditu. Guk ospakizun bat daukagunean txanpain eta gauza handie-



Lazkaoko Mendizabal baserrian jaioa da Francisco Garmendia.

kin ospatzen dugu. Eta Jainkoak ere horrelaxe ospatu nahi omen du, guri opariak eginez. Jainkoak gaur egungo mundua guztiz aldatu nahi du eta horregatik erlijio ezberdinak elkartzen hasi gara lanean. Horko buru naiz ni, New Yorken".

Euskal Herrian, norma-lean, alderantziz gertatzen bada ere, gazte jende asko joaten da elizara. Horren arrazoia garbi dauka lazkaotarrak: "lan asko egiten dugu-lako eta gazte jendearekin ibiltzen garelako. Eliz bakoitzak dauka eskola katolikoa. Ikasle asko daude. Ikasle horiekin eta beraien gurasoekin lan egiten dugu".

Esperantzaren telefonoa

Bronxeko gazteen arazo handiena droga da Francisco Garmendiak baieztatu digunez. "Drogak min handia egin du. Hego Amerikan droga asko dago eta Estatu Batuetara asko sartzen da". Drogazaleei eta Hego eta Ertamerikatik datozen imigranteei laguntzeko 'Hope Line' (Esperantzaren telefonoa) sortu zuten. "Gizartean integratzeko lan asko egiten

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

Tefnoa./Faxa: 88 46 41

Urdaneta Kalea, 56

ORDIZIA



UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

dugu. Lagun askori lana bi-
latzen diegu. Mexikon esa-
terako, oso pobreak dira.
New Yorkera etortzen dire-
nean, legez han egoterik
daukatenez, haiei laguntzen
diegu. Poliziarekin, janare-
kin, jantziekin lagundu eta
etxea bilatzen diegu. Inge-
lesa ere erakusten zaie, gi-
zartean integratzeko. Baita
ere janaria nola prestatzen
den, etxeko lanak nola egi-
ten diren... Elizatan hasi gi-
nen baina arrakasta handia
izan zuen eta asko zabaldu
da", adierazi digu.

Hainbesteko ezberdinta-
suna dagoen herri batean
Elizak paper garrantzitsua
bete behar du gotzainaren
esanetan. "Ezberdintasuna,
pobrezia, hor dago eta ba-
ten batek egin behar du eta
Elizak lan asko egiten du.
Beharrezkoa da gainera.
Esaterako etxe berriak
egin ditugu gure Elizatik.
Behar duenari eman be-
har zaio. Jende askok
egiten du lo kaleetan bai-
na guk etxeak egiten diz-
kiegu. Eliza laguntzeko
dago. Gobernuak berta-
ko pobreei ematen dizkie
diru-laguntzak, baina
etorkinei ez, ez baitauka-



Francisco Garmendia: "Politikako gauzetan Jainkorik ez badu-
gu sartzen, behera joango gara".

te eskubiderik. Orduan, guk
laguntzen diegu. Ilegalai le-
gal bihurtzen laguntzen die-
gu, paperak eta lortzen".

Laguntza hauek emateko
Gobernuak "ez dugu bost

xentimorik ematen. Meza-
tan jasotzen dugunarekin
moldatzen gara". Berak
meza ematen duen elizan
igandero 600.000 pezeta in-
guru biltzen dira.

Zenbait datu

- ✓ 72 urte ditu. Lazkaoko Mendiza-
bal baserrian jaioa.
- ✓ 23 urterekin apaiztu zen. Oñatin
egin zituen ikasketak. Ingalate-
rran eta Argentinan egona da.
- ✓ 1964an iritsi zen New Yorkera.
- ✓ New Yorkeko gotzaina eta Bronx
auzoko bikarioa da.

Hilketa saiakera

4 aldiz saiatu dira Gar-
mendia hiltzen. "Behin
kalean gazte batek geldit-
u eta esan zidan pistola
eskuan zuela: 'zer gerta-
tuko litzateke orain nik
zu hiltzen bazaitut?'.
'Zerura bidaliko nauzu',
esan nion. Hizketan egon
ginen. Beldurra nuen ba-
tetik, baina bestetik ikus-

ten nuen ez zihoala behera.
Azkenean esan zidan: 'zure
lepoa eta emakume hori
(Ama Birjina) ikusi dituda-
nean iritzia aldatu zait',
esan zidan. Belaunikatu
zen, beragatik erregutzeko
eskatu eta pake-pakean jo-
an zen".

Herrimina

Munduan asko ibilia da
Garmendia baina argi dauka
mundu guztiko tokirik poli-
tena Euskal Herria dela da.
"Hain da polita! Ohiturak
politikak; lurrak, mendiak,
arbolak politikak; dena hain
polita da. Baina behin
Jaungoikoak horrela nahi
izan zuen, berak antolatzen
ditu eta hantxe nago. Askok
estimatzen dut Euskal He-
rria. Gertutik jarraitzen di-
tu Euskal Herriko albisteak,
familia eta egunkarietatik.
Hau ezin daiteke ahaztu.
Hau zerua da", gaineratu
du.

Urtero etortzen da Laz-
kaora. "Askok aldatu da, etxe
asko egin dituzte. Hori sei-
nale ona da, gauzak ondo
doazenaren seinale, Elizatik
edo Gobernuaren partetik".

L. Agirre - M. Albisu



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 16 02 48
ORDIZIA

OIARBIDE
OINETAKOAK

Laskurain, 12
☎ 65 37 86
TOLOSA

San Inazio, 14
☎ 16 04 34
BEASAIN

OIANGU
TABERNA

☎ 88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA



JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA



- ✱ Tratamendu bereziak: liftinga, mikropigmentazioa,
behin-betiko depilazioa eta makilaje bereziak.
- ✱ Opariak: perfumeak, kosmetika eta osagarriak

J. M. Barandiaran pl., 3 ☎ 88 28 88 ORDIZIA



PEUGEOT
AGENTZIA OFIZIALA

SANTA ANA GARAJEA, S.L.

☎ 88 16 89 - ☎/Faxa: 88 08 67

Urdaneta, 74 - 76



ORDIZIA

MG
UAR

**Iluminazio denda
ireki berria!**


Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 88 86 88

☎ mugikorrak: 908-576580

eta 908-000831

ORDIZIA



GOITGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etkezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



☎ 88 55 00 **ORDIZIA**



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 16 16 74 - 16 13 28 BEASAIN

Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 **ORDIZIA**



GABIONA

Rodamientos, S.A.

Biltegi eta bulegoak:

Goierri k. 4

Goierri K. z/g

☎ 88 45 00 Faxa: 88 99 06

ORDIZIA

*Eguberri
zorionteak
guztiori!*



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegitratzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90

Mallotz, 25. pab.

Faxa: 88 82 67

ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11

ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - **ORDIZIA**

Tfnoa. eta Faxa: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

BEASAIN

Eskisabel eta Gipuzkoako plazaren hitzarmena sinatu da


'Mataderoko' aparkalekua' bezala ezagutzen den gunearen, hau da, Eskisabel eta Gipuzkoako plazaren, garapenarako hitzarmena sinatu zen azkeneko udalbatzan. Gauzak honela, guztira 50 etxebizitza eraikiko dira, 'L' forma izango dute. Lurrarzpiko aparkalekuak, baju komertzialak... izango dituzte.

Horrekin batera Urbieta eraikuntzaren parean zubi berria egingo da, bide berriarekin (ibaiaren paraleloa) uztartuko litzatekeena. Promotoreen esku izango dira azken bi lan hauek.

Hitzarmen honek EAJ, EA, PSE-EE eta PPeren aldeko botoak izan zituen; IUren abstentzioa; eta HBren kontrakoa.

Gabonak gainean dira

Gabonak eta urte amaiera gertu daude eta jakina den bezala apaingarritz betetzen dira kale, denda, etxe eta txoko guztiak. Kaleak kolorezko argiz bete dira eta dendetako apaingarriei da-



Juan Jose Lizarralde omendua

Beasain Kirol Elkartek 95/96 denboraldiko zuzendaritzak, Beasain futbol taldeko jokalariei eta jokalariei ohiek Juan Jose Lizarralderi omenaldia egin zioten, urteetan zehar elkartean eginiko lana eskertzeko. Juan Josek 78/79 denboraldian hasi zuen bere lana eta 75 urte betetzean omenaldia egin diote. 60 lagun elkartu ziren Rubioren jatetxean egindako bazkarian eta bertan zenbait opari eman zitzaizkion. Taldeko kapitaina izandako Robertok txapela jarri zion. Argazkiak jasotzen duen unea da hori.

gokienez, Euskara-batzordeak Udal Euskaltegian apainketak euskaraz egiteko ikastaro labur bat burutu du, era honetara etxe, taberna eta dendak euskal kultura eta euskaraz apaindu ahal izango ditugu.

Bestalde, Gabonetako zuhaitz, jaiotza eta olentzeroen lehiaketa eta erakuske-

ta antolatu du Udalak. Bertan herriko edo Goierriko edonork parte har dezake. Hiru lehiaketen oinarriak berdinak dira eta teknika eta formatoak libreak izan daitezke. Zuhaitz lehiaketari dagokionez, benetako zuhaitzak erabiltzen badira, sustraiak izan beharko dituzte. Lanak abenduaren 23

eta 26an aurkeztu beharko dira eta Usurbe Antzokian utziko dira sariak banatu bitartean; hau da, Erregeen egunerarte.

Kiroldegiko igerilekua

Datorren urterako igerileku klimatizatuaren berritzearen beharra aurrikusten da. 100 milioi inguruko aurrekontua izango da eta instituzio ezberdinei diru-laguntza eskatuko zaie.

Era berean, kiroldegiarekin jarraituz, kirol txartelak ateratzeko garaia iritsi da. Kirol txartelak epeka, eta erabilpenaren arabera ateratezke. Kirol programa ezberdinak daude: integral, mant-gym, aerobio, gimnasioa, igeriketa, eta abar.

'Tigre ehizan'

Aingeru Epaltza idazlearen 'Tigre ehizan' liburuaren aurkezpene izango da abenduaren 19an, iluntzeko 7.30etan, Beasaingo Udal Liburutegian, Kulturkidek antolatuta.

Izaskun Salazar

Yañez

**BITXIDENDA
ERLOJUTEGIA**



*Kalitatezko bitxigileak
Prezio egokiak
Aukera zabala*

Nagusia, 11 ☎ 88 04 99
BEASAIN



*Labores
Otea*

Gurutze-puntua
Puntu erdia
Mertzeria

Andra Mari, 1 BEASAIN

**ORKI
OPARIAK**

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5

☎ 88 10 50

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

ZALDIBIA

Ur eta zabor-tasen ordainketa

Udalak zabaldu duen ohar-
rrak dioenez, 1996ko azken
hiru hilabeteko ur-hornizio
eta sei hilabeteko zabor-bil-
ketari dagozkien tasa-errol-
dak Diruzaintza Departa-
mentuan dago ikusgai, hil
honen 22ra arte, hala deriz-
kionak epe horren barruan
nahi dituen erreklamazioak
egin ditzan. Borondatezko
ordainketa-epea abendu-
aren 26an amaituko da.

Banketxeetan zuzenean
kobratzeko ipinita edo hel-
bideratuta dauden errezi-
bokak hasieran kobratuko dira.
Gaineratikoek beraiek pasa
beharko dute banketxeeta-
tik. Hurrengoan zuzenean
kobratzea nahi duenak erre-

ziboa helbideratzeko eska-
dezake banketxean. Boron-
datezko epe barruan ord-
daintzen ez diren errezi-
boek % 20ko erreklargua izango
dute.

Eskribau poligonoko Arauk Subsidiarioak

Eskribau izenez ezagutzen
den etxea aspaldidanik dago
hondatutzat edo bi-
zitzeko ez-gaitzat
emana. Bere garaian
etxe-jabeak tanteatu
zuen Udaletxean ea
leku horretan beheko
planta eta 12 etxebi-
zitza berri, hiru plan-
tatan banaturik,
ateratzeko modurik

izango ote zuen. Luzaz az-
tertu eta herriko nahiz Di-
putazioko hirigintzako tek-
niko eta arduradunen infor-
meak aztertu ondoren, posi-
bilitate hori bideragarria de-
la ikusi du Udalak. Arau
Subsidiario zaharren arabe-
ra, ordea, eziznekoa zen.
Hori dela eta, kalegune edo
poligono horretako Arau

Subsidiarioak aldatzeko
proposamena aurkeztu du
Udalak.

Bestalde, garbi gera bedi,
momentuz, Arauen aldaketa
baizik ez dagoela martxan,
egunen batean etorriko den
proiektua bideratu ahal iza-
teko aurrepauso edo presta-
era besterik ez. Hori bai,
Arau Subsidiarioen aldake-
ta proposamena jen-
de guztiaren eskue-
ran dago, nahi due-
nak ikusi eta hala de-
rizkion ohar eta erre-
klamazioak egin dit-
zan; hori egiteko hi-
labeteko epea dauka.

Rufino Iraola



ZERAIN

Goierriko Eguberrietako jaiotza txapelketa

Kultur Etxeak eta Udalak
elkarlanean, Goierriko
jaiotza txapelketa antolatu
du. Eguberrietako jaiotza-
gintza bultzatu nahi da eki-
men honekin, batik bat gaz-
teen artean.

Hiru maila izango dira:
6-10 urte bitartekoena; 11-

14 urtekoena; eta 15-18 urte
bitartekoena. Jaiotzak edo-
zein teknika erabiliz eginak
izan daitezke. Neurriak,
gehienez, 0,7 m. x 1 m.koa
izango da.

Lanak abenduaren 21 eta
23an ekarri beharko dira Pi-
lotalekura. Jaiotza bakoit-

zak aparteko kartazal bate-
an egilearen datuak ekarri-
ko ditu. Erakusketa pilota-
lekuan bertan izango da,
abenduaren 24tik urtarrila-
ren 6ra bitartean.

Maila bakoitzean 3 sari
banatuko dira: 1goari
25.000 pezeta; 2.ari 15.000

eta 3.ari 10.000. Sariak ur-
tarrilaren 6an banatuko dira
eguerdiko ordu batean. Eta
jaiotzak berreskuratzeko
aukera urtarrilaren 7, 8 eta
9an izango da, pilotalekuan
bertan.



ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA



Gabon zoriontsuak
eta Urteberri on!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



GOKINDEGA
GARONA

K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19

☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44

BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

ORMAIZTEGI

Olaran eta Aranburu irabazle, J. M. Gorostidiren memorialean

Aurtengoan IV. San Andres pala txapelketa jokatu da. Iaz 16 bikotek parte hartu bazuten ere, aurtun 22 izan dira partaideak. Txapelketa hau geroz eta arrakasta handiagoa hartzen ari dela nabari izan da, batez ere gazteengan.

Gainera aurtengoan Joxe Mari Gorostidi omendu eta gogoan eduki nahi izan da. Ondorioz IV. San Andres pala txapelketa hau Joxe Mari Gorostidi memorialean izan dugu, bera txapelketa honetako jokalaria eta partaidea izaten baitzen.

Sari banaketako unean Joxe Mariren sendiartekoei bihotzez eskaini zitzaizkien oroigarri bat. Honela zioen: "Frontoi barruan eta frontoi kanpoan erakutsi zenuen alaitasuna eta adiskidetasuna ez ditugu ahaztuko, zure lagunek".

Finala Merzero eta Azkaratek, Olaran eta Aranbururen aurka jokatu zuten. Partidua bere osotasunean bi bikoteen artean nahiko berdindua izan zen, beti ere



Olaran eta Aranburu irabazleak, ezkerretara.



Joxe Mari Gorostidi.

Olaran eta Aranburu bi edo hiru tanto aurretik joan baziren ere. Azkenean garaipeña beraiek lortu zuten.

Hirugarren postua Txomin eta Jose Luisek lortu zuten, laugarrena, berriz, Lasa eta Muruarentzako izan zen. Errebelazio saria Azpiazu eta Iztuetari eman zitzaizkien. Jokalari onenarena Aranburuk eskuratu zuen.

Jubilatuaren jokuak

Jubilatuak azaroaren 23 eta 24an puntu, bote, toka, igel eta mus txapelketak jokatu zituzten.

Puntuak irabazleak Manuela Oiarzabal eta Patri Urkia izan ziren; bigarrenak Madalena Aldanondo eta Maria Aizpeolea; eta hirugarrenak Mari Karmen Sarasola eta Asun Etxezarreta.

Tokan, Pedro Iza lehengo, Jose Luis Acedo bigarren eta Jose Urreta hirugarren.

Boten, Mari Karmen Sarasola izan zen irabazle, Inazio Lapizondo bigarren eta Pedro Iza hirugarren.

Igelean, Fausto Gurrutxaga, Pedro Iza eta Inazio Lapizondo izan ziren lehe-

nengo hirurak.

Musean Jose Urreta eta Fausto Gurrutxaga izan ziren irabazleak; bigarren lekuan Jose Luis Borde eta Jose Luis Acedo; eta hirugarren lekuan Inazio Lapizondo eta Pedro Iza gelditu ziren.

Aitziber Murua

ALUMINIOS




EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminio xafla normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batzaz beste

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 88 26 73

IDIAZABAL

Udala peajearen aurka

Etxegarateko bikoizketa eta peajearen kontua aztertzeke pleno berezia egin zuen udalak abenduako lehenengo astean. Udala osatzen duten hiru alderdiek (EA, HB eta EAJ) ahobatez peajeari kontra egitea erabaki zuten eta horretarako beharrezkoak diren ekintzak egitea ere adostu zuten.

Udalbatzan Antton Irizar alkateak esan zuenez, Gipuzkoako Diputazioak Eibar-Gasteiz bidearen aldeko apostua egin du. Eskualde horretako enpresari eta politikari batzuk presio taldea osatu dute errepide horri garrantzia emateko, alkatearen esanetan. Horren aurrean plenoan aipatu zenez, Idiazabalgo udalari tokatzen zaio Etxegarateren aldeko indarrak batu eta bikoizketa lehenbailehen eta

peajerik gabe egin dadin lortzea.

Udalbatzan Etxegarete-

ren aldeko plataforma bat osatzeaz ere hitz egin zuten. Plataforma horrek inguruko

herrietako agente sozialak inplikatuko lituzke.

Zirika irratia

Zirika irratia Emakundek komunikabideentzat antolatzen duen lehiaketan saria jaso du. Zirikak irratia ataleko lehenengo saria jaso du (625.000 pezeta) Emakundera aurkeztutako lanagatik.

Zirika irratiko taldeak hiru irratsaio eta 'Halako egurra bestelako ezpala' irratinobela aurkeztu zituen lehiaketara. Zirika irratia-ekin batera, El Mundo egunkariko bi kazetari eta Telebilbao telebista saritu ditu aurtan Emakundek.

Xabier Urteaga



Getxoko Hartzak taldeak irabazi zuen Idiazabalen jokatzen zen Sofboleko finala. Aurrez-aurre Getxoko taldea eta Irungo San Martzial taldeak aritu ziren. Herriko jende dexente bildu zen partidua ikustera nahiz eta eguraldiak ez zuen asko lagundu. Bukaeran elkarrekin argazkia atera eta udalak eskainitako luntxa hartuta joan ziren sofboleko jokalaria. (Arg.: Lurdes Intxausti)

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA



AUTO ESKOLA

Eguberri eta urte berri on!

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

Bai Bai

pub

Zorionak eta Urteberri on

Zaldizurreta, 3

☎ 16 21 75

BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

PEAGE

ZURE BAKERO DENDA

BEHERAPENAK

Kale Nagusia, 42

☎ 16 20 56

BEASAIN



MAPFRE

ASEGURU TALDEA

'Eguberri zoriontsuak denoi!'

Pello Barandiaran

☎ 16 13 61

Hirigoien, 18

LAZKAO

LAZKAO

Pintura erakusketa Udaletxean

Abenduaren 14tik 29ra bitartean ikusgai izango ditugu Udaletxeko batzar-aretoan Josu Konde eta Maider Urretabizkaia gazteen pintura-lanak. Arte Ederretan lizentziatutako bi herritar hauei azaroaren hasieran bururatu zitzaizen erakusketa egitearen ideia. Udaletxean asmoa azaldu eta ondorioz, bi astetan zehar izango da erakusketa zabalik.

Maider eta Josuk bi estilo desberdin jorratzen dituzte, bai kuadroen gaietan, baita hauek egiteko moduan ere. Maiderren lana abstrakzioaren ildotik doa. Texturari garrantzi handia ematen dio; era berean, kuadroak egiteko erabiltzen duen materialak ere garrantzi handia dauka. Josuk, aldiz, figurazio errealista lantzen du. Bere azkeneko lanek anbiguitate ukitua dute.

Gainerakoan, 23-26 kuadro inguru ikusi ahal izango dira erakusketa honetan. Kuadro hauek ikusteko aukera egunero izango dugu, igandean izan ezik. Hona hemen ordutegia: astelehenetik ostegunera arratsaldeko 6.00etatik 8.00etara. Ostiral eta larunbatetan, eguerdiko 12.00etatik 14.00ak arte eta arratseko 6.00etatik 8.00etara. Josu eta Maider batzar-aretoan izango dira egunero, bertaratuko direnei kezkak, galderak argitzeko asmoz.



Josu Konde eta Maider Urretabizkaiaeren pinturak abenduaren 29rarte ikusgai izango dira Udaletxean

Euskal liburu eta diskoen azoka

Azken urte hauetan ohitura bihurtu denez, oraingoan ere liburu eta diskoen azoka indarberrituta datorrigu. Hain ezaguna dugun Durangoko azokaren ondorengo astean burutzen da. Aurten, abenduaren 13, 14 eta 15a dira azoka ikusteko ditugun

egunak. Ostiralean arratsaldean izango dugu hainbat liburu eta disko ikusteko aukera, baita erosteko ere; larunbatean goiz eta arratsaldean egongo da zabaldua azoka, eta igandean, azkenik, igandean.

Gabonak gainean ditugula kontutan izanik, asko dira Udaletxeko arkupetara hur-

Gabonetako egitaraua

Udalak hainbat ekintza antolatu ditu Gabon egun hauekarako. Abenduaren 20an, esaterako, ipuin kontaketa izango da Arrate Leunda ordiziarraren eskutik, 17:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian.

Abenduaren 22an, Eguberritako kanta Gregoriano eta Polifoniar entzungai izango dira, Lazkaoko abesbatza eta Easo Koruko Eskola Gregorianistaren eskutik, Praileetan, 12:00etan.

Abenduaren 24 eta 25ean, jaiotza biziduna izango da eguerdian, Lazkao Txiki Zelaian.

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra, 11:00etatik 13:00etara haur jokuak plazan eta 17:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian, pelikula emanaldiak izango dira.

biltzen direnak, opariren bat edo beste erosteko intentzioarekin, noski. Aurten, beraz, nahi duen orok egokiera ederra izango du honetarako, are gehiago, salgai egongo diren disko eta liburuak % 10eko beherapeana izango dutela ikusita.

'Moskorrak' Mus txapelketa

Abenduaren 15ean burutuko da 'Moskorrak' Mus txapelketa. Gerriko tabernan hasiko da arratsaldeko 4.30etan; partaideek 3.30etatik aurrera eman beharko dute izena eta bikoteko 3.000 pezeta ordaindu beharko da. Txapelketa 8 erregeetara jokatu da eta partidak 8 hamarrekotako hiru usteletara izango dira. Epailen erabakia eztabaida ezina izango da.

Lehenengo kanporaketa amaitzean txerria zozketatuko da partaideen artean.

Sariak, berriz, honako hauek dira: lehenengo bikotek 120.000 pezeta eta txapela; bigarrenak 60.000 pezeta; hirugarrenak 30.000; laugarrenak 15.000 pezeta; bosgarrenak 2 arkume; seigarrenak baserriko bi oilasko eta markako bi botila; zazpigarrenak bi lote kaba; eta zortzigarrenak bi tarta. Herriko lehenengo bikotek bi txuleta jasoko ditu.

Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza



Elosegi, 16

88 65 00

LAZKAO

- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

ETXEBE
TABERNA

Gabon zoriontsuak opa dizkizue

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN

SEGURA

Odol-emaileen elkarteak 25 urte

Zapatuan, abenduaren 14an, 17:00etatik aurrera egingo da aurtengo 3. eta azken odol-emaitea Osasun Etxean. Ondoren, herriko zenbait denda eta tabernaren laguntzaz emandako mokadutxoak izango da. 1971ko irailean, 15-20 emailerekin sortu zen Segurako odol-emaileen elkarteak. Bertan, 15 urtez, Milagros Elorza aritu zen ardura lanean. Gaur, M^a Jesus Mendizabal, M^a Jose Sarriegi, Joakina Alustiza, Rafaela Telleria, Tere Andueza, Eustakio Telleria eta Xeberiano Intxausti dira odol-emaiteak prestatu eta Gipuzkoako elkartearekin harremanetan aritzen direnak. Urtean 3 emate egiten dira, apirilean, abuztuan eta abenduan. Guztira 70 emaile badaude ere, 55en batek ematen dute odola urtean. Aurtengoa 120 odol-emaite izatea espero da. Kontutan izanda Gipuzkoa Estatuko 3. odol-emailerik onena dela (50 emate 1.000 biztanleko, urtean), Segurak, beste herri txiki askoren antzera, proportzio onenetakoa du Gipuzkoan (86 emate 1.000 biztanleko, urtean). Sexuari dagokionez, emakumezkoak eta gizonezkoak paretsu daude. Adinari dagokionez, berriz, 4 emailetatik 3, jende heldua da. Hau izanik elkarteak gehiena kezkatzen dituen, gazte gehiago inguratzea da bultzatu nahi dutena. Bitxikeriatan sartuz, "0+"dunen ehuneko ikaragarri altua (emateen erdia), azaltzen da Seguran.

Gabonetako II. Kulturaldia

Elorri Kultur Elkarteak antolatuta, herria eta herriarrak ardatz harturik eta herriko jendea hizlari izanik, 6 eguneko kulturaldia antolatu da. Ekitaldiak Kultur Etxean, 19:30etan.

-Astelehena, 16: Aitzol

Telleriak eta Felix Goiburuk aurtengo udan egindako espedizioaren diapositiba emanaldia. **Astearte, 17:** Solasaldia: "Herriko tabernak lehen eta orain". Joxe Insausti eta Laureano Telleria beste batzuren artean. **Asteazkena, 18:** oraindik konfirmatu gabeko. **Osteguna, 19:** IV. Elorri idazlan sariketaren aurkezpena. Bertan, Goenkaleko Mikel Garmendia izango da beste aktore batekin, beraien anekdotak kontatu eta jendearen galderei erantzuteko. Ekitaldi berean, III. Elorri idazlanen liburuskak aurkeztuko da. **Ostirala, 20:** "Euskal umo-

rea". Xabier Amuriza, Joxe Insausti eta Pedro Etxezarreta. Ondoren, bertso-afaria Elorri elkarteak. **Astelehena, 23:** "Futbola eta futbolariak gure herrian". Joxe Gereñuren batera, Segurako taldean aritutako zenbait jokalaririk izango dira.

Iazko Kulturaldiko hiru solasaldietan esandakoekin, liburuskak argitaratuko da.

Pelota

Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketako finalurrekoak asteburu honetan jokatu dira, frontoi neutralean eta partidua bakarrera. X. Etxeberriak

eta J. A. Honbrek altzotarren kontra eta I. Artolak eta I. Etxeberriak azkoitiarren kontra. Irabaziz gero, finalera pasatuko lirateke, bakoitza bere modalitatean.

Futbola

***Asteburuko emaitzak: Infantilak:** Aizkorri 3-4 Santo Tomas. **Kadeteak:** Aizkorri 9-0 Urnieta. **Jubenilak:** Zestoia 2-4 Segura. **Errejonialak:** Segura 2-1 Miren Bihotza.

***Asteburuan etxean: Errejonialak:** Segura-Aurrera, jaietan, 15:30etan.

Labur labur

● **Zopajale Elkarteak** "mus azkarra" antolatu du abenduaren 13an 10:00etarako. 8 errege, 8 hamarreko, eta 3 ustelera. Bikoteko 2.000 pezeta. Sariak: 1goek, bildutako diruaren % 50a eta trofeoa, 2.ek, % 30a eta trofeoa eta 3.ek, % 20a.

● **Elorri Elkarteak** urteroko bazkideen batzarra egingo du abenduaren 13an, 20:00etan.

● **Gabon kantuak** ikasi eta entsaiatzeko zapaturo, 16:00etan biltzen hasi dira Elorri Elkarteak. Interesatu guztiak gonbidaturik daude.

● Elorri K. E.koek antolatuta, **Mutxiko dantzen** jarraipena egingo da abenduaren 14an eta 21ean. 14an goizeko 11:00etan Kultur Etxe aurrean elkartuko dira.

● **Kirol eskolarra:** Abenduaren 14an futbitoia, pelota eta tenisa izango diutze. Abenduaren 15ean, goizeko 8:30etan plazatik irtenda, Herniora mendi irteera.

● **Mendiko federatu karnera** berri edo ateratzeko Mendi Elkartekoak abenduaren 23an, 19:30etatik 20:00etara Kultur Etxean egongo dira.

Joseba Telleria



Gabonak

● Abenduaren 20an, arratsaldean ospatuko dute Laiotz Herri Eskolan **Olentzeroren etorrera**. 3tik 7 urtera bitarteko haurren geletatik pasako da Olentzero, intxaurrek banatuz eta marrazkiak eta eskutitzak jasoz.

● Udalak antolatuta, urteroko **Kantu eta Anda Txapelketa** egingo da abenduaren 22an, mezaren ondoren, plazan. Lanak 11:30etarako plazan egon beharko dute. Atal bakoitzeko 3na sari banatuko dira eta partehartzaile guztiek izango dute sari txoren bat.

● **Olentzero Eguna:** Orain dela 20 urte, herriko hainbat jenderen inizatibaz hasi zen ospakizun hau. Olentzeroren jantzia, Xabier Kintanak diseinatu, Urretxutik ekarri zuten, besteak beste Maixabel Oiarbidek eta Rafa Berasategik, Etxezuriko Mariatxo Izetak aren modura jos zezan. Zantzarrentzat ardi-larruak eta gainerako osagarriak ere orduan inguratu ziren. Olentzero jantzita Rafael Izagirre zena ibili zen urte pare batean eta ordutik hona Martxelo Agirre. Aurtengorako zenbait berrikuntza egin nahi dira: Olentzeroren karroza berri, ibilbiderako astoak, artzaiak, ardiak... jarri, eta plazarako, berriz, txalapartak, adar joleak, dantzariak, sua, gaztiña erreak... Herriko txistulariak, korua eta antortza eramaleak ere ez dira faltako. Karroza arratsaldeko 18:00etan irtengo da Madalenatik eta Errebaletik pasata, herri-buelta eginda bukatuko da plazan. Jendeari baserriar jantzita azaltzeko eskatzen zaio.

ORDIZIA

Bertantxe dugula Olentzero

Urte osoan zehar mendian ikatza egiten aritu ondoren, heldu zaio Olentzerori herrira jesteko garaia. Haur guztiak zai dauzka, eskutitz idatziak eta askok postontzian utziak izango dituzte dagoeneko. Gurera abenduaren 24an etorriko da, ohitura duen bezala, eta aurten ere Festa Batzordea Hitzaro Euskara Elkartearekin batera harrera prestatzen aritu da.

Barrena aurrekaldean (azalean ikusten duzun bezala) Olentzerontzia prest dago jadanik haurren eskutitzak jasotzeko. Eta aipatu bezela asteartean herrira heltzen denerako guztiok zain edukiko gaitu. 6:30etan Garagartza plaza-rtik irtengo da Aldasororaino iritsiaz, ondoren berriz goraldera herri-guneko kaleetatik Enparantza Nagusi-ira iristeko. Tartean Urdaneta eta Jakintza dantza-talde-ek italdiak izango dira.

Amaitzeko, Olentzero oholtza gainean dela; haurrei zuzenduko zaie gaztainak eskeiniaz eta nola ez, eskutitzen bat irakurriaz. Oroith eta Santa Ana abesbatzak ere hor izango dira eguberri kanta bana abesteko. Ondo portatu bazara idatz iezaiozu lehenbailehen Olentzerori zeure eskutitza eta postontzian bota. Olentzero segituan dugu herrian.



Hitzaroko 96-97 urtealdiko arduradun batzordea osatzen dutenak.

Programa aurkezpena

Hitzaro Euskara Elkartek urrian eman zion hasiera 96-97 urtealdiari. Ordu ezkerotik programa bat aurkezteko modutan izan dira eta esan orokorrean iazko jarraipen bat izango dela. Egitasmoan haur eta gazteak dira protagonista eta eskolaz kanpoko ekintzek osatzen dute plangintzaren zatirik handiena. Horien artean euskarazko bideo eta filme emanaldiak eta larunbatetarako aisialdi-taldea aipatu litezke.

Gizarte zabalagoari begira prestatu direnen artean irakasleentzako haur-jolasen ikastaroa, izen-abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpaina, monitoreentzako ikastaroa eta herriko Elkar-teekin batera argitaratu nahi duten kantu-afari liburuxka azpimarra daitezke.

Hasiak dituzte dagoeneko Udalarekin harremanak eta orain dela gutxi Ordizian izan zen "Ahoz aho, belaunez belaun" hizkuntza transmisioaren inguruko erakusketa izan liteke elkar-lan horren adibide. Aurrera begira ere hor dago baita ere Udalean zein udalerrian euskara biziberritzeko Plan Nagusiaren lanketa burutzearen helburua. Eta guzti hori eratu berria den Euskara Azpibatzearen baitan, non Hitzaroz gain, Udaleko ordezkariak, ikastetxeak eta euskaltegiak ere biltzen diren.

Hitzarok Euskal Herrian euskararen aldeko lanean diharduten bestelako erakunde eta elkarteekin batera ere baditu proiektuak. Honela, Euskal Herri osoko euskara elkarteak biltzen dituen federakundeko par-

taidea da Hitzaro. Baita UEUko Soziolinguistika Sailekoa ere. Halaber harreman zuzena du Egunkaria, EHU, EKB eta UEMA bezalakoekin.

Guzti honetarako hor ari dira arduradun batzordeak gain hiru lantalde desberdinak. Atzetik era batera edo bestera laguntza ematen duten 175 bazkide, denak ere helburu berarekin: Ordizian euskararen aldeko apostua egitea.

Futbito txapelketa

Lehenengo fasea amaitzen ari den honetan, finalaurdetara pasako direnak zehaztu gabe daude oraindik. A multzoan 5 taldek dituzte 4 lehenen artean geratzeko aukerarik handienak. Momentuz, eta 8 ihardunaldi igaro direnean, Urbitarte sagardotegia da nagusi. Atzetik Badago, Santos, Ya Somos Tres eta Morapios daude, denak ere 3 punturen aldeko tartearen barruan. Multzo honetako goleatzailerik onena Urbitarteko Alain Perez da oraingoz, 12 golekin. B multzoan ere gauzak antzera daude nahiz eta Alboka Taberna den gainetik dagoen. Tximistak ere sailkatzeko aukera handiak ditu eta ondoren Wikas, Ñañarri eta Laketen artean jokatu dira gainontzeko bi postuak.

Aitor Calvillo

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Mairidireak - Mahai oihalak
Toallak - Gortinak eta osagaiak

M. Zeberio
88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

VICUNIA Sport

Kale Nagusia, 11
88 93 17
ORDIZIA



AXOLA
JANTZIDENDA

GIZON - EMAKUME - GAZTE MODA

J. M. Barandiaran, 1
16 15 65
ORDIZIA

Xabier Azurmendi hil zaigu

Xabier Azurmendi olerkaria zendu zen azaroaren 26an. Genero desberdinetako lanak egin bazituen ere, olerkari bezala ezagutzen zen Xabier, eta Zegamako ahozko literaturaren biltzaile bezala ere bai.

1971. urtean plaza-ratu zuen lehen poesia liburua; 'Izatearen malura', Gero argitaletxearen eskutik. 1973an 'Maiteño' lanarekin, Gipuzkoako Kutzak antolaturiko Irun Hiria izeneko sarietan, olerkien generoan bigarren saria irabazi zuen. Lehenengo saria Martin Iturbek eraman zuen 'Asekaltz' lanarekin. 1974an, argitaratu zuen, Gipuzkoako Kutzak 'Asekaltz/Maiteño'. Liburu honen 2. edizioa 1978an argitaratu zen.

1978an, 'Jesus' izeneko lana argitaratu zion Leopoldo Zugazak. 1986an, 'Santa Kruz apaizaren biografia' lana Ekin argitaletxeak argitaratu zuen. Lan hau argi-



taratzeko Xabier Azurmendik ikerketa lan ugari burutu behar izan zituen eta, liburu horren hitzaurrean honela dio: "Egunean baino egunean gehiago miresten da Santa Kruz apaiza, abertzale eta gure askatasunaren defendatzaile izan baitzen".

1991n, Patri Urkizurekin batera, 'Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)' liburua moldatu eta argitaratu zen, Etor argitaletxearen eskutik.

Xabier Azurmendik Historia ikasi zuen eta arlo horretan oso jakituna zen, bere kezkak argitzeko hainbat

eta hainbat ikerketa burutzen zituelarik. Egun inprentan dagoen lanak 'San Adrian eta inguruko kondairak' ere makina bat buruhauste eman arren, bere teoriak finkatzen saiatu da. Bere ikerketaren tartean sar dezakegu; Zegaman dagoen garai bateko albokajole eta alboka egileen aztarnen gainean egindako ikerketa lana ere.

Bere pentsakerari baga-gozkio, Joxan Ormazabalek dionez, poemak idazteko garaian "existentzialista" zen, erlijioarekiko ikuspegi "positiboa" zeukan eta "oso heterodoxoa" zen.

Irakurketarako autore gustokoenak, klasikoak zituen.

Xabier Azurmendik, azken urteak Hernaniko Florida parrokian egin zituen, handik Zegamara ere bisita ugari egiten zituelarik, batez ere buruan zeukan ideia edo kezkaren bat argitzeko ikerketa lanak burutzeko asmoz.

1996ko udaberrian, Zegamako Kultur Etxeak Juan Telleria musikariaren gainean ikerketa lan bat egiteko eskatu zionean sarritan bisitatu zuen bere jaioterria, musikaria ezagutu zutenen oroitzapenak grabatu, eta idatzita jaso ondoren, Jose Luis Ansorenarekin batera apirilaren 26an hitzaldi bat eman zuen Kultur Etxean.

Honen ondoren, Zegamako armariari buruzko ikerketa lana egin zuen, aurtengo San Bartolome jaietako egitarauan, argitaratu eta herritar guztioi banatua jadanik. Azken finean, benetan gizon irekia zen bere herriarekin loturiko edozein ikerketa lan egiteko.

Edurne Albizu

Gizon handia izan zarela guztiok degu jakitue dudarik gabe heriotz honek denoi eman digu minne zail izango da berriz sortzea zu bezelako berdiñe guri eman diguzunagatik mila esker Axeritue.

Joseba Albizu

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BERSAIN

ARANTXA

MERTZERIA - LENTZERIA

Gabon Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3 ☎ 88 76 15

ORDIZIA

LOPETEGI

AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2 ☎ 88 21 74 BERSAIN
Oria Kalea, 14 ☎ 65 11 17 TOLOSA

INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Gabon zoriontsuak!

Urdaneta, 26 ☎ 88 04 46 Faxa: 16 14 07

ORDIZIA

Sinetsi nahi ez eta sinetsi egin behar. Hau da hau oinazea sentitzen dudana! Azaroaren 26an jasotako telefono deiak hitzik gabe utzi ninduen. Bapatean, Xabierrek esandako hitz, histori, ipuin eta gertakizunak burura etortzen zitzaizkidan, ordena bat aurkitu nahi eta atzekoz aurrera ipintzen nituen.

"Ez esan gero inoi operatzera noanik, bestela ezin izango dut pausorik eman Zegamako kalean!". Bai Xabier, herritarrok asko maite zintugun, historigile, ipuin biltzaile, olerkari eta azken batean pertsona bezala, gizon handia izan baitzara arlo guztietan.

"Hori Xabier 'Axariñeri' galdetuko diogu, ... Xabier 'Axariñek' jakingo du, Xabier 'Axariñek' hau eta hura esaten du...". Zenbatetan eta zenbatetan errepikatu ote ditugu aurreko hitz hauek? Zure ingurukook, zegamarrok, zuregan aurkitzen genuen babesa, orainarte bagenekin nora jo. Erantzun txarrik inoiz ez, herriaren alde lanean zebilenari laguntzeko prest, herriko ahozko literatura tajuz jaso duzun bakarrenetakoa zaitugu, ez duzu nagirik izan etxez etxe eta baserriz baserri ipuin zahar, mitologiakoak, kondairak eta herriarren arteko gorabeherak jaso eta idatzita uzteko.

Inor baino lehenago ohartu zinen zenbaterainoko altxorra zuen Zegamak arlo horretan, eta inor gutxi baloratzen zuen hartan, han zeunden zu, tokiko bezala, jaso eta paregabeko lan neketsu eta handi hori gauzatzeko.

1988an, Zegamari buruz egin nuen lantxo bat burutzen lagundu zenidanean ohartu nintzen zenbaterainoko garrantzia zuen zuretzat Zegamak, bertako garai bateko Ahaide Nagusiak zein etxetakoak ziren goitik behera izendatzen zenituen, bakoitzak zituen errota, burniola, lonja e.a. non zeuden behin eta berriz aipatuz. (Ikaitz, Altziber, Gosategiak, Intxausti, Aitamaren...). Ladronek Zegama Ahaide Nagusiari buruzko hainbat eta hainbat histori, e.a.

Tamalez, Zegamako herriak urte asko behar du, hain gizon jakintsua munduratzeko. Nere lagun batek, ospitalera egin zizun bisita hartako hitzak ere ezin ditut ahanzi. "Aizu, Asun, Elizan dagoen 'Hijos Ilustres de Zegama' deritzon koadroari kopiarik aterara al diozue?" Zure historialari sena, azkeneraino izan duzula bistan da hilzorian, eta Elizako kuadro batengatik arduratuta? Bai Jaunak, azkenean, inork baloratzen ez zuena, Axariñerentzat oso baliotsua baitzen.

'San Adrian eta inguruko kondairak' Gerriko Ikerlan Sariketan saritua, joan den urtean, inprentan zegoela helerazi zion Asunek, eta irrifarre bat irten omen zitzaien. Azken finean, bere lana, berak esaten zuen bezala, ama batentzat bere umea bezalaxe da, berea.

Eztarrian korapilo bat sentitzen dudana honetan, zure lanak nola edo hala argitaratzeko beharrezkoak diren ate guztiak joko ditugula adierazi nahi nizuke zegamar guztion izenean.

Edurne Albizu



'Moreno rock' kontzertua Zaldibian 27an

A benduaren 27an, ostirala, gaueko 10:30etan kontzertu erraldoia izango da Zaldibiko frontoian. EH sukarra, MCD, Potrotaino, Su ta gar, Parabellun eta Beermosh taldeak izango dira bertan. Sarrerak 1.200 pezeta balio du. Aurrez Ordiziako Orlegi, Leizea eta Kiskan eta Beasaingo Arrano tabernetan egongo dira salgai. Kontzertua Ordiziako Potrotaino musika taldekoek antolatu dute, taldekide duten 'Moreno'ri laguntzeko.

Maiatzean Potrotaino taldeko bateria den Gorka (Moreno) 23 urteko legazpiarrak burmuin isuri edo derramea izan zuen. Hau zela eta, hainbat denbora koman egon ondoren, bizirik atera bada ere, gorputzaren alde bat elbarri geratzeaz gain, hitz egiten ahaztu zaio eta beste hainbat ondorio geratu zaizkio.

Honen aurrean Potrotainoko taldekideek zerbait egin beharra ikusi zuten. Berriz hitz egiten ikasi eta errehabilitazioa egiteko garaian, seguridade soziala

motz geratzen da eta medikuntza pribatura jo dute eta hau garestia da. Gastu hauei aurre egiteko kontzertuan parte hartu behar duten eta beste hainbat taldeekin harremanetan jarri ziren eta gehienek erantzuna baiezkota izan zen. Azkenean ahal den entzule gehien eta mota ezberdinetakoa erakartzeko asmoarekin 6 talde hauek aukeratu zituzten. Denak gastuen truke etorriko dira.

Kontzertuaz gain dirua biltzeko beste kanpaina bat ere egin dute herriko taberna etabarretan. Kontzertuko gastuak handiak direnez, diru-laguntza hauen beharra dute. Sarrerez gain, Ordizia eta inguruko herrietan jende gaztea mugitzen den lekuetan bono-laguntzak jarri dituzte salgai.

Potrotaino taldea 1984an sortu zen. Bi disko dituzte. Estatu mailan indar handia hartu zuen taldeak, 'Muerte al violador' diskoarekin.

Abenduaren 27ko kontzertuaren ondoren, urtarrilean, Estatuan jira bat egingo dute.

20 ARTISTEN LANAK IKUSGAI ZERAINGO SAN BLAS ERMITTAN

Goya pintorearen omenezko erakusketa

Francisco Goya pintorearen omenezko erakusketa antolatu du Zerain herriak, abenduaren 20tik urtarrilaren 12ra arte, Goya hil zela, 250 urte bete diren honetan. Hego Euskal Herriko 20 artisten artelanak izango dira ikusgai San Blas ermittan, asko gainera, erakusketa honetarako espreski egindako koadroak.

Francisco Goyaren birraitona zeraindarra zen. Hargina zen eta Aragoira joan zen bizitzera. Francisco Goya pintorea haren ondorengoa da. 250 urte dira bera hil zela eta Zerainek omenaldia eskaini nahi dio erakusketa handi batekin.

Hego Euskal Herriko 20 artisten eskultura, pintura eta grabatuak izango dira San Blas ermittan. Zumeta, Goenaga, Arrastalu, Tapia, Lertxundi, Manterola, Salazar, Tamayo, Salaberri, Lazkano, Anda, Catania, Ortiz de Elgea, Mieg, Basterretxea, Karrera, Zubia-rrain, Jauregi eta Joxe Mari Telleriarenak. Azken hau Zerainen bertan bizi da, eta bera ibili da Seguran bizi

den Jesus Jauregirekin batera, erakusketaren antolaketan.

Telleria berak adierazi digunez, "oso harrera ona izan da artisten aldetik. Lan gehienak Goyaren omenez egindakoak dira, obra berriak izango dira, espreski erakusketa honetarako eginak. Denbora gehiagorekin ibili izan bagina, lan hobeak eta gehiago bilduko lirake. Baina hala ere, oso erakusketa garrantzitsua izango da. Gehienbat erakusketa honetarako lanak egin baitituzte".

San Blas ermittan

San Blas ermitta iruditu zaie egokiena. Argiztapen egokia eta alarma sistema jarri dituzte eta koadroak ere aseguruak egongo dira. Sarrerarik ez da kobratuko, baina katalogoak hori bai, salgai jarriko dira.

Abenduaren 20an izango da inaugurazioa, iluntzeko 7.30etan. Donostiako soka laukote bat etorriko da, Goyaren garaiko musika jotzera.

Erakusketa ikusteko ordutegiak hauek dira: aste-
gunetan 15:00etatik
18:00etara; larunbata, igande eta jaiegunetan,
11:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 19:00etara.



Joxe Mari Telleria pintore segurarrak 'Egunon Patxi' kuadroa egin du Goyaren omenezko erakusketa honetarako.

'Egunon Patxi'

Horixe da Joxe Mari Telleriak egin duen koadroaren izena. Goya, pintura, musika eta Zerain uztartu ditu bertan. "Fon-
doan Goyaren autorretratua jarri dut. Gaietik pintura eta musika uztartzen dituen pintura mota jarri diot. Zeraingo zortziko baten musikaren errepresentazioa da. Zortziko hau nire aitaren paperetan aurkitu dut. Eta zortziko horren notak isladatu ditut pinturaren bidez. Zortzikoaren hasiera 'Egunon Patxi' zioen. Goya ere Francisco zen eta 'Egunon Patxi' jarri diot koadroari izena. Beraz, Goya, pintura, musika eta Zerain lotu ditut lan honetan".

Telleriaren estiloa pintura eta musika uztartzean datza. "Nota bakoitzak bere kolorea du, erritmoak ere. Musikako denbora, pinturan espazio bihurtzen da. Zortziko honetan, esaterako, notarik motxenak kortxeak dira. Orduan lerro bat eman diot. Beltzari gehiago eta txuriari gehiago. Lerro bakoitzean arrastoak daude eta horiek notak dira", argitu du.

CHANEL

San Inazio, 14
88 93 90
BEASAIN

CLINIQUE

Lirain

YVES SAINT LAURENT

Jean Paul GAULTIER

**Perfumeak
Opariak**

Kosmetikoz osatutako otartxo pertsonalizatuak

Christian Dior

Oscar de la Renta



76. belaunaldiko zaldibitarak

Zaldibiako Lardizabal Eskolako 76. belaunaldiko ikasleak dira honako hauek.

Zutik, ezkerretik eskubira: Alaitz Insausti, Maddalen Hernandez, Intza Armendariz, Bakarne Elorza, Alaitz Urdangarin, Joxan Ganzarain, Edurne Puertas, Igone Eskisabel, Aitziber Irazusta, Jorge Navio eta Iñaki Lopetegi.

2. lerroan: Maialen Olano, Iker Insausti, Amaia Sainz, Gorka Azurmendi, Ustaritz Ormaetxea eta Ainhoa Agirre.

3. lerroan: Aitor Iraeta, Roberto Montero, Urtzi Garmendia, Itoitz Garmendia, Aloña Mendizabal, Jaione Izagirre, Itsaso Garmendia eta Oskarbi Jauregi.

Astun-Candanchu

- **Gabonak 26tik 30era**33.500etik
Autobusa, hotela *** P/E, erremontea, aseguruia eta gidaria
- **Erregeak 2tik 5era**26.000tik
Autobusa, hotela *** P/E, erremontea, aseguruia eta gidaria
- **Erregeak 4tik 6ra**17.000tik
Autobusa, hotela *** , gosaria, erremontea, aseguruia

Baqueira-Beret

- **Erregeak 2tik 5era**39.500 pezeta
Autobusa, hotela *** P/E, erremontea, aseguruia eta gidaria
- **Erregeak 4tik 6ra**25.000 pezeta
Autobusa, hotela *** P/E, erremontea, aseguruia eta gidaria

Pas de la Casa

- **Gabonak 25etik 30era**41.000 pezeta
Autobus litera, hotela *** P/E, erremontea, aseguruia eta gidaria
- **Erregeak 1etik 5era**33.000 pezeta
Autobus litera, hotela P/E, erremontea, aseguruia eta gidaria

*Asteburuetarako zenbait aukera.
Agentzian informatu zaitetz!*

P/E: Pentsio Erdia



Kale Nagusia, 36
☎ 16 15 46 - 47
BEASAIN

Euskal Artistak Goya-rekin Zeraingo Omenaldia

Goya-ren jaiotzaren 250. urteurrenean

20 EUSKAL ARTISTEN LANEN ERAKUSKETA:

Basterretxea, Anda, Mieg, Zumeta, Tapia, Telleria, Jauregi, Catania,
Salazar, Tamayo, Lertxundi, Arrastalu, Zuriarrain, Ortiz de Elgea,
Goenaga, Salaberri, Manterola, Lazkano, Carrera eta De La Fuente



San Blas Ermitan

Abenduaren 20tik
Urtarrilaren 12arte

Ordutegia:

Astegunetan: 15:00 - 18:00

Asteburuan: 11:00 - 14:00
16:00 - 19:00

Eguberrietako oparien
eskaintza berezia,

**GOIERRIKO
ARTISAUTZA** guztia.

Erakusketa eta
salmenta **MANDIOAN**

18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

- Interes-tasa berezia.
- Libreta edo taloitegia aukeran.
- 50.000 pta.ko kreditu iraunkorra.
- Dohaneko ServiRed Txartela.
- Lehentasunezko interesa kreditu hipotekario eta pertsonaletarako. Eta ikasketetarako kreditua 5 urtera.
- Bidaiak eta hizkuntz-ikastaroak atzerrian.
- Gaztearentzako informazio-telefonoa 900 20 00 00.



**Euskadiko
Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

